

pro-ra

prozesu-demostrazioa: Nolanahi ere, *happening*-ean izaten den sorpresa-efektu bat batekoaren, aztoragarriaren, efikazia, denborarekin akitua baitzegoen antzeko beste fenomeno publizitarioen ondorioz, bestelako ekintzako arte-errepresentazioko metodo berri bat sortu zen arte prozesualarekin —arte-korronterik berrienetakoa den honekin—. *Happening*-ean ez bezala, prozesu-demostrazioan aurrez egindako plangintza xehe bati jarraitzen zaio, eta jarrera esperimantal eta ekintzako kontziente baten training praxis (aktibo) bezala ulertzen da. Asmo hori lortzeko, artista prozesualak ekintza-eskaintza berezi bat egiten du bere manipulazioarekin, manipulazio horren kausalitatea baldintzatzuten duten faktoreen ezagutza zehatz eta orokorra ematen baitu. Zentzu honetan, lehendik ezagutzen diren errito kontsumista konbentzionaletatik abiatuz antzeman ezin daitezkeen erabilpen-xedeak dituzten objektuak eskaintzen ditu artista prozesualak. Delako objektu horiek ez dute inolako posizio-baliorik izaten kontsumoko mekanismo normalaren testuinguruan, baizik eta arte-hartzailearentzat erabilera-moduak asmatzeko tresneria berezi bezala balio izaten dute, eta objektuaren beraren ezaugarriak eta baldintzak xeheki aztertuz deduzitu behar izaten dira. Artistak demostrazioko adibide bat emanez laguntzen dio objektu-erabilitzaileari asmatzeko prozedura honetan. Demostrazioko prozesu horren helburua ikuspen eta manipulazio sentikor bat lortzeko *training* bat egitea izaten da, kontsumora bideratua dagoen zibilizazio modernoaren portaerarentzako kontrapisu terapeutiko bezala balio dezan; jarduerak kontzienteak modelikoki erkatzen dira portaera konbentzionaletako laginek.

psikoanalisisa: Psikoanalisiaren zientzia erreprimututako sentimenduen eta horiek kontzientzian sortzen duten eraginaren ikerketaz aritzen da eta Sigmund Freudek hasi zuen 1916an bere *Psikoanalisiaren sarrerakoak* ospetsua argitaratu zuenean. Ikerketa psikoanalitikoak portaera-modu psikikoen determinazioa pertsona psikikoki aldatuen, hau da, neurotikoki gaixo daude-

nen, tratamendurako aplikazio terapeutikoko metodo batera eramaten du, eta eragin handia izan du artean, bereziki dadaismoan eta surrealismoan, eta, orain berrikiago, akzionismo vienarrean. Subkontzientearen indar sortzaile bezala hartutako ametsaren sublimazio surrealista, kontzientziaren eta plano errearen eta ametsaren arteko bereizketa freudianoari esker bakarrik izan da posible. Freuden ondorengo eskola psikoanalitikoak (G.C. Jung eta Wilhelm Reich) egiten duen inpulsoaren eta desiraren ikerketak osatzen du ekintza-arte deitutakoaren funtsa, zeina erreprimututako barne-bulkadak askatzen saiatzen baita.

punta lehorrezko grabatua: Kalkografiako prozedura bat da, zeinetan, akoafortearen ez bezala, ondorengo azido-janik gabe lan egiten baita, hau da, lehorrean eta korrosioaren aurreko beroketa-prozedurarik gabe, hau da, hotzean, Orratz batekin lan egiten da; orratz hori lapitz baten antzekoa izaten da eta altzairurik gogorrenkoa —inoiz gutxitan diamantezkoa ere bai—, eta azalera leunduaren gainean aplikatzen da, metalik urratu gabe. Altzairuzko punta hori kontuz erabili behar da, nahi denean lerro finak eginez edota, aldiz, zeharka sakatu (alakan) eta bizarra ateraz; ondoren, inprimatzeko tinta ematen denean, tintamordo handiagoa har dezake bizar horrek eta inprimatutako paperean matizazio xuabe eta sakoneko efektu berezi bat eranstu du. Estanpa xumea eta garbia ematen du.

puntalismoa: ikus neoinpresionismoa eta dibisionismoa

purismoa: 1918an purismoaren manifestua azaldu zen *Après le cubisme* tituluarekin eta Amadée Ozenfant eta Le Corbusierrek argitaratuta. Idatzi horretan gogor kritikatu da kubismoaren azkeneko fasea, batez ere kubismo sintetiko eta orfikoak, pintura kubistaren kontzeptu formalen, jatorriz hain argiak ziren horien, trastoño gazigeza direla esanez, eta sinpletasun arkitektonikora berriz ere itzultzea aldarrikatuz. Kubismoaren funtsezko ideia hura garbi utzi behar dela ezpurutasun emozional gutzietatik;

berrikuntza plastikoaren sinbolo bezala makinaren edertasun funtzionala hobesten eta preziatzen da. Purismoak ez zuen inolako eragin garrantzitsurik izan 1920. urte inguruko eboluzio historiko-artistikoan eta ezin izan zuen alderdi emozionalak markatutako abstrakzioa pixkanaka nagusitzen joan zedin itzuri.

rayograma: Lau urte lehenago Christian Schad-ek Genevan egin zuenaren antzera (schadografia), 1922an garatu zuen Man Rayk kamerarik gabeko fotografiaren teknika hau, bere collage lanetarako erabiliz. Rayograma deitu honek prozedura foto-tekniko bat adierazten du, zeinak zuri eta beltzeko efektu bidez argiarekiko sentikorra den plaka bat eraldatzen baitu hainbat eratako objektu zuzenean aplikatuz. Aplikazio horretatik ingerada zirriborrotsuak ateratzen dira inolako kalifikazio zehatzik ematen ez dutenak, eta, aldiz, irudimenaren indarra aske uzten dutenak konbinazio anitzeko jolas batean. Irudimena zirikatze ahalmen honengatik rayogramak bide asko ireki zizkion espresio-molde surrealitari 1924tik aurrera.

rayonismoa: 1913an Mikhail Larionov artista errusiarrak bere Rayonismoaren Manifestua idatzi zuen Marinetti teoriko futuristak Moskun eta San Petersburgon emandako hitzaldien eraginpean. Futuristen espresio artistiko aldiberekoari jarraipena emanez, laugarren dimentsio baten presentzia erreklamatzeko koadro rayonistarentzat, argiarena. Bere asmoak aurrera eramateko, Larionovek eta bere emazte Natalia Goncharovak objektuak diagrama erradial abstraktutan deskonposatzen zituzten, objektuok, energia hutsean deskonposatu eta mekanikako legeetatik askatuz (denboraren eta espazioaren mugapenetatik). Larionov eta Goncharovak, abstraktu errusiarren abangoardia moskobita deituaren zirkulukoak baitziren, Pariseko Teatrarako eszena-dekoratu teknikoki berritzaileak egiteko aplikatu zuten izpi-balen teoria *rayonista*, inolako objekturik errepresentatu gabe eta espazio argitu eta mugatu baten gainean argi mugikorra zabalduz. ■